



EBAZPENA, 2021EKO UZTAILAREN SEKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, 2021EKO MAIATZAREN 28KO EBAZPENEN AKATSAK ZUZENTZEN DITUENA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO LANGILE-BEHARRAK ESTALTZEKO LAN-POLTSETAN AGERTZEN DIREN PERTSONEN BAREMAZIOEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA, LAN-POLTSAK EGUNERATUTA BAITAUDE.

AURREKARIAK

LEHENA. - Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak betetzeko lan-poltsak eguneratu ziren.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsetan agertzen ziren pertsonen baremazioen behin-behineko zerrendak onartu ziren; halaber, hamar egun balioduneko epea eman zen zerrenda horretako edozein daturi buruzko erreklamazioa aurkezteko Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, behar bezala dokumentatuta.

BIGARRENA. – Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek eta lan-poltsetako langileek aurkeztutako merezimendu eta dokumentazio berriak aztertu ondoren, Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak betetzeko lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen behin betiko zerrenda barematuak argitaratu ziren, lan-poltsak eguneratu ondoren.

Atarian 2021eko maiatzaren 28an argitaratu ziren.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango dela adierazten da, Justizia sailburuordeari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA. - Garaiz eta behar bezala, bi errekurtsu aurkeztu dira Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren aurka. Horietan agerian geratu dira argitaratutako zerrendan egindako akatsak, "B" letraz bestelako letra bat erabili baita merezimenduen puntuazioan berdinketa gertatuz gero hautagaiak ordenatzeko; hautagaien zerrendak kudeatzeko araudia onartzen duen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko azaroaren 30eko Aginduan xedatutakoaren arabera.

Era berean, zenbait interesdunek errekurtsua aurkeztu dute, garaiz eta behar bezala, Justizia Administrazioako zuzendariaren 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren aurka. Bertan, aurkeztutako titulazioen balorazioan bi akats dagoela nabarmendu dituzte.

BIGARRENA. - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua araber, *“administrazio publikoek, halaber, edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetan dauden akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”*.

Hori dela eta, zuzendu egingo dira argitaratutako behin betiko zerrendan antzemandako akats horiek.

Zerrenda eguneratua, zuzenketak eginda, www.justizia.eus webgunean eta Justizia Langileen Atarian argitaratuko da.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena. - Justizia Administrazioko zuzendariaren 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenarekin batera argitaratutako zerrendetan antzemandako akatsak zuzentzea.

Bigarrena. – Ebazpen honen ondoriozko zerrendak, eranskin gisa erantsi direnak, argitara daitezela agintzea eta www.justizia.eus webgunean eta Justizia Langileen Atarian argitara daitezela agintzea.

- I. eranskina.- Behin betiko zerrenda, alfabetikoki
- II. eranskina.- Behin betiko zerrenda, puntuen arabera

Hirugarrena. - Zuzenketaren ondoriozko lan-poltsen ordena berria 2021eko uztailaren 5ean sartuko da indarrean.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari. Honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gora jotzeko errekurtsioa aurkezten denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpenik ematen ez bada, errekurtsioa ezetsita dagoela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 5a.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

JON ARTURO URIARTE UNZALU
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA